



**ERREZIL**  
**TOKIKO AGENDA 21**  
**HERRI PLANA 2008**

**Izenburua** Tokiko Agenda 21. Errezilgo Herri Plana 2008

**Egileak** ERREZILGO UDALA/ LAIA S.COOP.

**Hartzaileak** Errezilgo Udala  
2006ko otsailaren 13a

**Proiektuaren  
hasierako data:**

**Iraupena** 2 urte

---

<b>Bertsioen historia</b>	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas
	EBE/Errezilgo Plana_01	Herri 08/12/06	Sortu	

## SARRERA

### ERREZILGO AGENDA 21. HERRI PLANA

- Errezilgo udala 2007an Agenda 21eko prozesuan barneratu zenetik herriaren diagnostiko egin eta hau abiapuntutzat hartuta Errezilgo Ekintza Plana diseinatu zen 2008 urte haserarako, etorkizunerako plangintza definitzeko.
- Errezilgo Ekintza Plan honen diseinuan herritarrek ere parte hartu zenuten antolatu ziren 2 herri batzarretan. Lehenengoan herriaren egoeraren inguruko ekarpena jasotzeko, diagnostikoari begira, eta bigarrenean Ekintza Planaren gainean lehenetsun handieneko ekintzen aukeraketa egiteko.

### UDAL BARRUKO PROZESUA, ZERTAN ARITU GARA?

- 2008 urte hasieran Ekintza Plan hau osoko bilkuran onartu bazen ere, prozesuan aurrera egin ahala, egoerak eta metodologiak zituen epeen ondorioz, udalean behar beste landu gabeko Ekintza Plana diseinatuz eta ohartu zen udala. Honen aurrean, Udalak Ekintza Plan onartuaren gaineko hausnarketa eta lanketa sakonago bat burutu du urte osoan zehar, udal batzordekide eta teknikari guztien partehartzearekin.
- Lan honen ondorioz, Ekintza Plana moldatu eta zehaztu da, "errealagoa" den **Errezilgo etorkizunerako Herri Plan berri bat** diseinatu delarik. Herri Plana herri batzarrean aurkeztuko da.

### HEMENDIK AURRERA ZER?

- Ekintza Planeko ekintzak garatu behar behar dira
- Ekintzen jarraipena egingo da, garapen maila eta helburuen betetzea neurtu eta baloratu
- Prozesuaren jarraipenerako herritarren partehartzea ezinbestekoa izango da

## **ERREZILGO HERRI PLANA (2008)**

### **HERRI PLANA OSATZEN DUTEN EKINTZAK (PROGRAMEN BARRUAN)**

#### **P.1.1. UDALERRIAN HIRIGINTZAKO PLANGINTZA ETA ARAUDIA IRAUNKORTASUN IRIZPIDEekin LANTZEKO PROGRAMA**

- AASen berrikuspenean etxebizitzak, bizitza bat baino gehiagotan banatzeko aukerak arautu.

#### **P.1.2. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERAKO OINARRIZKO ZERBITZUAK LANTZEKO PROGRAMA.**

- Internet zerbitzua herritar gehiagorengana zabaldu.
- Telefono mugikorraren kobertura hobetzeko konpainiak/operadoreak presionatu, antena berriak jar ditzaten eskatuaz.
- 2010erako aurreikusten den "Itzaltze digitala" datorrenerako prestaturik egoteko neurriak hartu.

#### **P.1.3. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERA, HEZKUNTZA ZERBITZUAK SORTU ETA GARATZEKO PROGRAMA.**

- Udalak/ Guraso eskolak eta gizarte asistentziatik urtero antolatzen dituen ikastaroentzako herritarren nahi eta beharrak jaso eta deialdia ireki.

#### **P.1.4. UDALERRIKO OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO BALDINTZAK BEHARREI EGOKITU ETA GARATZEKO PROGRAMA.**

- Sendagileak gizarte zerbitzuekin duen elkarlana bideratzen jarraitu.
- Etxebizitza babestuen adineko erabiltzaileek independentzia maila egoki bat izan dezaten lortu.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua, beharraren maila altukoa denetan, kubritu beharreko orduak diruz laguntzea bultzatu.
- Gizarte asistentziatik bideratzen diren zerbitzu berrien inguruko informazioa erabiltzaile posibleei helarazi
- Adin txikikoen interbentzio familiarren kasuetan beharrezkoa den psikologo zerbitzua eskeini ahal izateko neurriak hartu.

- Inmigratioari zuzentzen zaizkion programa eta laguntza ezberdin inguruan eguneraturik egon eta beharraren arabera erabili
- Jubilatuei zuzenduriko ekimen berriak antolatu eguneko zentruan, dinamika bideratuegien aurrean eredu ezberdinak erabiliaz (Aiako emakumeen autokudeaketa,...)
- Eguneko zentruetara mugitzeko dagoen garraio zerbitzuari etekin handiagoa atera, aktibitate ezberdinak antolatzeko (irteerak,...).
- Udalak jubilatuei zuzendutako irteerak antolatzen jarraitzea
- Eguneko zentruan urtean zehar ekimen ezberdinak antolatzen jarraitzea guraso elkartearekin bat eginik.

#### **P.1.5. UDALERRIKO BEHARRETARA EGOKITUTAKO AISIALDIA, KULTURA ETA KIROI ZERBITZUAK ESKAINTZEKO PROGRAMA.**

- Aisialdi, kultura eta kirol ekimen berriak proposatzeko herriko eragile ezberdinen inplikazioa lortzeko bideak ireki.
- Herri inguruko natura eta paisaia herritarrek zein kanpotarrek gertuagotik ezagutzeko eta honekiko sentsibilizazio lan bat egiteko ekimen ezberdinak antolatu eta kanpotarrari begira informazio euskarriak prestatzeko aukerak aztertu.
- Ludoteka berriaren proiektu berriari jarraipena egin: izango dituen funtzio anitzak erabiltzaile izango diren herriko gazteen eskakizun ezberdinei egokitzen zaizkiola ziurtatuz eta gunea beharren arabera egokitzen joan.
- 17 urtetik gorako herriko gazteek elkartzeko duten beharrari irtenbide bat bilatu.

#### **P.1.6. UDALERRIAN HIZKUNTZEN BIZIKIDETASUNA BERMATZEKO PROGRAMA.**

- Euskera ikasi nahi duen herritarrari euskera ikasteko erraztasunak ematea (euskaltegiko gastuetan laguntzea,...).

#### **P.2.1. BIDE SAREA HOBETZEKO PROGRAMA.**

- Baserri bideen mantentze eta berritze lanekin jarraitu.

**P.2.2. GARRAIO PUBLIKOA HOBETU ETA BERONEN ERABILERA SUSTATZEKO PROGRAMA**

- Eskola garraioaren eta garraio publikoaren zerbitzua behar berriei egokitu eta sendotu.

**P.2.3. UDALERRIAREN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO PROGRAMA.**

- Udaletxeko eta Eskolako irisgarritasuna hobetzeko neurriak hartu.
- Herria zeharkatzen duten ibilgailuen abiadura moteltzeko neurriak hartu.

**P.3.1. UR HORNIKUNTZA ETA ARAZKETA SISTEMAK HOBETU ETA UR KONTSUMOA MURRIZTU ETA ERABILERA ERAGINKORRA BULTZATZEKO PROGRAMA.**

- Ur sareak dituen beharrentzako finantziario bideak landu.
- Ur kontsumoaren inguruko balantzea egin ur galerak ezagutzeko.
- Herriguneko araztegi sistema hobetzea.

**P.3.2. ENERGIAREN KONTSUMO ERAGINKORRA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEKO PROGRAMA.**

- Argi indarraren sarea eguneratu.
- Herrigunean gas propanoa sartzeta.
- LGPetan aurreikusten den Ernio-Gatzume-ko Parke Eolikoaren garapenaren inguruan informaturik egon eta honen aurkako neurriak hartu.
- Herritarrari energia berriztagarrien inguruko informazioa eskuragarri jarri.

**P.3.3. HONDAKINEN EKOIZPENA MURRIZTU ETA KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA.**

- Birziklagarriak diren hondakinen bilketa zerbitzua aztertu eta beharrendaren arabera zaborrontzi ezberdinen horniketaren eskaera egin.

- Kontroletik kanpo dauden zabortegiak identifikatu eta garbiketa lanak egin.

#### **P.4.1. EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA.**

- Natur eta kultur ondarean oinarritutako produktu turistiko berriak landu eta eskeini ahal izateko teknikari bat hartzeko aukerak aztertu.
- Industrialak ez diren tokiko beste jarduera alternatiboak landu eta daudenak bultzatu: herriko produktuen salmenta, gaztandegien bisitak, artisautza, baratzagintza eta basogintza ekologikoak,...
- Herrian jarduera industrialak dibertsifikatzeko aukerak aztertu.

#### **P.5.1. NEKAZAL LURRAK BABESTEKO PROGRAMA**

- Nekazal lurren egoeraren azterketa egin eta ustiatzeko eskuragarri leudekeen lurak identifikatu, AAOOaren berrikusketan barneratu eta onartuaz.
- AASSen berrikuspenean pinudien landaketa arautzea beharrezkoa den aztertu.

#### **P.5.2. BASERRIAREN EKONOMIA SUSPERTZEKO PROGRAMA**

- Udaletik ahal den neurrian diskriminazio positiboa egin herriko baserritarrei: aktibitatea dibertsifikatu eta hobetzeko laguntza eskeini, inbertsioak egiterakoan erraztasunak emanaz, ...
- Baserriek dituzten oinarritzko beharrak betेरik izatea ziurtatu
- Errezil Sagarraren ekoizpen, salmenta eta irudiari bultzada bat emateko ekimenak indartu.

#### **P.5.3. BASO ETA LARREK EGOERA ONEAN MANTENTZEKO PROGRAMA**

- Bertan behera utzitako lursail eta bideak berreskuratu eta birgaitzeko ekimenak bultzatzea.

**P.6.1. NATUR BALIABIDEAK ETA ONDAREA ZAINTEKO PROGRAMA**

- Epe luzean biodibertsitatea handitzea eta aukera ekonomikoak eskaintzen dituzten baso-espeziei buruzko informazioa eskuratzea eta zabaltzea.

**P.7.1. UDAL KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA**

- Udal artxiboa digitalizatu
- Udaletxeko lan ardurak eta konpetentziak ondo zehazteko neurriak hartu eguneroko kudeaketa erreztako.
- Web orriko atal ezberdinak eguneraturik mantendu udaleko ordezkari ezberdinen laguntzarekin.

**P.7.2. HERRITARREN ETA UDALAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA**

- Herritarrei, helbide elektronikoak erreztu ditzaten eskaera formala egin, nahi duenari udaleko informazioa bertara bidali diezaie eskeiniak.

**P.7.3. PARTEHARTZEA ETA HERRI-GIROA SUSTATZEKO PROGRAMA**

- Auzolana bultzatu eta auzolanetarako segurua kontratatzea beharrezkoa litzatekeen aztertu
- AASSen berrikuspen prozesua herritarren partehartzearekin egin.